

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

188 positibo berri  
7.487 positibo guztira\*  
hildako EAEn  
36 UCIn EAEn

### NAFARROAN

265 positibo berri  
11033 positibo guztira  
539 hildako  
6 UCIn Nafarroan

\*HERNANIN 192, ASTIGARRAGAN 41

## Gaurtik aurrera eskuratu daitezke, merkataritza eta ostalaritza sektoreak biziberritzeko erosketa bonoak

Covid-19ak sortutako alarma egoerak «kalte haundiak eragin ditu herriko hainbat jarduera ekonomikoetan». Hori horrela, #eutsihernaniri kanpaina abiapuntutzat hartuta, 50 euroko balioa duten erosketa bonoak gaurtik eskuragai daude.

### HERNANI EROSKETA BONOAK

Udala eta Berriak elkarteak elkarlanean #eutsihernaniri erosketa bono txartelen kanpaina jarri zuten martxan ekainean, «herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreak biziberritzeko, eta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzeko asmotan».

Hori horrela, kanpaina hau abiapuntutzat hartuta, bigarren olatua martxan jarriko da gaur. Hala ere, aurrekoarekin alderatuta aldaketa txikiak daude, funtzionamendua hobetzeko.

Beraz, gaur martxan jarriko den erosketa bonoen kanpaina aurrekoa bezala da, herriko saltokietan, ostalaritza establezimenduetan eta zerbitzuetan erabiltzeko. 50 euroko 6.000 bono jarriko ditu Udalak herritarren eskura. Oraingo honetan eta 90.000 euro bideratzea suposatzen du horrek.

### Helburuak

Bi helburu nagusi ditu kanpaina honek, hala nola, herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreak biziberritzea eta to-



50 euroko balioa izango duten erosketa bonoak, jada eskuragai.

kiko garapen ekonomikoa bultzatzea, eta herritarrek dituzten «erosketa ohituretan eragitea», herriko dendetan erostera animatzeko.

### Gaurtik, bonoak eskuragai

Gaurtik lortu daitezke erosketa bonoak. Berriak elkartearen egoitzan erosi daitezke, edo Bi-

terin. Udalak gainera jakinarazi du, kreditu txartelarekin ordainduko direla, eta bonoa eskuratzeko «Nortasun Agiria erakustea beharrezkoa» dela. Nortasun Agiria ez duten adingabeek, «Familia Liburua erakutsi beharko dute».

Erosketa bono hauek, ekimenera atxikitzen diren saltoki,

ostalaritza establezimendu edo negozioetan erabili daitezke. Gainera, «kanpaina parte hartzen duten establezimenduek kartel adierazgarri bat jarriko dute erakuslehioan».

Gaur emango zaio hasiera erosketa kanpaina honi, eta urriaren 31ra arte bitartean erabili ahal izango dira aipatutako bonoak. Udalak adierazi du, bonoekin egindako erosketetan ez dela dirua itzuliko. **K**

**«Herriko merkataritza eta ostalaritzari laguntzeaz gain, herritarren erosketa ohituretan eragin nahi dugu, herriko dendetan erosteko»**

## Bihar amaitzen da, Erribera kultur etxeko inaugurazio ekitaldian parte hartzeko postalak aurkezteko epea

Asteburu honetan, Erriberaren inaugurazio ekitaldia egingo da. Gainera, honekin batera, postal lehiaketa jarri zuten abian eta bihar izango da postalak aurkezteko azken eguna.

### ASTIGARRAGA ERRIBERA KULTUR ETXEA

Larunbatean, Astigarragako Erribera kultur etxearen inaugurazioa egingo da. Eta horrekin batera, abian jarri zen postal lehiaketan parte hartzeko azken eguna bihar izango da. Egungo kultur etxea agurtzeko eta Erriberari ongietorria egiteko, postala bete, telefono zenbakia idatzi eta zozketan parte

hartuko da. Postalaren atzealdean bi gogoeta idatzi daitezke, bi marrazki egin, edo bi sententzia islatu «Agur kultur etxea esaldiari erantzunez bat, eta Kaixo Erribera esaldiari bestea».

Gainera gogorarazi dute, larunbatean, kultur etxe zaharri «agur» esateko aukera izango dutela herritarrek goizean, «hainbestetan erabili izan dituzuen txoko horiek azken aldiz ibiltzeko». **K**



Larunbat honetan, kultur etxe zaharra agurtuko dute astigarrarrek, berriari ongietorria emateko.

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko



**EGURALDIA GAUR** Gaur hodeiak egongo dira, batez ere ipar partean eta mendebaldean, eta egunaren lehen zatian zaparrada batzuk bota ditzake. Arratsaldean hodeiak gutxitu egingo dira eta egunaren bukaeran zerua nahikoa garbi geratuko da. **Min.13° / Max.19°**

**BIHAR** Bihar eguzki giroa bueltan izango da lurralde osoan. Goizaldean eta goizeko lehen orduetan hodei multzo batzuk eta behe-lainoa soilik agertuko dira. Egunaren gainerako orduetan oskarbi egongo da. **Min.13° / Max.21°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Gaur hasiko ditu igeriketa taldeak, 20-21 denboraldiko entrenamenduak

Igeriketa taldeak, gaur hasiko ditu 20-21 denboraldiko entrenamenduak. Gainera 8 urtetik gorako neska mutilak animatu nahi dituzte igeriketara.

**HERNANI IGERIKETA**

Igeriketa taldeak dio, egoera erraza izan ez arren, «ilusio haundiz» hasiko dutela denboraldia. Gainera, 8 urtetik gorako gazteak animatu nahi dituzte taldean igeri egitera. Aurten-goan gainera, «monoaleta eta sinkroa probatzeko aukera izango dute gazteek». Beraz interesa izanez gero, [igeriketahernani@hotmail.com](mailto:igeriketahernani@hotmail.com) helbide elektronikora idatzi. **K**



«Monoaleta eta sinkroa probatzeko aukera izango dute gazteek».

## Aldaketak iragarri ditu Hernaniko Udalak, egutegi fiskalean

Covid-19ak eragindako egoera bereziaren ondorioz, aldaketak egon dira egutegi fiskalean eta tartean, 2020ko ibilgailuen zerga kobratzeko epean.

**HERNANI UDALA**

Covid-19aren eraginez, Udalak jakinarazi du aldaketak egon direla egutegi fiskalean, eta tartean «2020ko ibilgailuen zerga kobratzeko epean».

Hori horrela, adierazi du, or-

daintzeko epea 2020ko irailaren 10ean amaituko dela, hau da, datorren ostegunean. Horrez gain, helbideratuta dauden erreziboak epearen azken egunean kobratuko direla ere gaineratu du. Eta helbideratu gabekoentzat dio, «etxean erreziborik jaso

ez badira, epea amaitu aurretik HHZ edo bilketa bulegoarekin harremanetan jarri kopia bat eskatzeko».

**Harremanetarako, kontaktuak**

Bi bide daude harremanetan jartzeko; lehena, emailez idatzi daiteke, [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus) edo zerbaki honetara deitu, 943 33 70 00. Eta bigarrena, [bilketa@hernani.eus](mailto:bilketa@hernani.eus) helbidera idatzi, edo 943 33 70 34 zerbakira deitu. **K**



Plaza inguruan, herritarrek erosketak egiten.

## Postuz bete zen pasa den ostegunean, Kaxkoa

**HERNANI STOCK AZOKA**

Stock azoka egin zen pasa den ostegunean. Eta Covid-19ak eragindako osasun alarma honetan, Plaza Berrin ez egitea

erabaki zen, segurtasuna bermatzeko eta aglomerazioak saihesteko. Hori horrela, Stock azokan parte hartzen zuten dendek, haien establezimendu

kanpoan jarri zuten postua, eta Kaxkoa bete zen. Izan ere, goiz eta arratsaldean egon ziren hainbat komertzio, eta herritarrek hau aprobetxatu zuten.

## Ostegunean 'Desmontando la pandemia' hitzaldia izango da, Atsegindegin

**HERNANI HITZALDIA**

Esna Hernani antolakundeak hitzaldia antolatu du datorren ostegunerako. Biokimikan doktorea den Asier Galanek 'Desmontando la pandemia' hitzaldia emango du arratsaldeko 19:00etan, Atsegindegin. Hainbat gai landuko dira bertan: PCR test-en balio gabetasuna, hartutako neurrien kalteak, txertoen auzia, birusak eta exosomak, besteak beste. Joan den astean ere konferentzia egin zen Atsegindegin, eta oraingo honetan ere gai hauen inguruan hitz egitera gonbidatu dute Galan, Esna Hernaniko kideek.

## Etzi hasiko da, gazteen denboraldi berria

**HERNANI ARRAUNA**

Asteazkenean hasiko dute Hernaniko arraunlari gazteek denboraldi berria. Hau horrela, gaztetxoek denboraldia hastear dagoenez, asteazkenean, arratsaldeko 16:30etan, bilera bat egingo da lokalean (Ibarluze industrialdea). Gainera, Arraun elkarteak, 11 urtetik gorako Hernaniko neska zein mutilak animatu nahi dituzte «gurekin arraunean egitera». Beraz, interesa izanez gero, idatzi [hernani.arrauna@gmail.com](mailto:hernani.arrauna@gmail.com) helbide elektronikora.

## Bihar amaitzen da, Biteriko ikastaroetan izena emateko epea

**HERNANI KULTUR EKINTZAK**

Bihar da Biteriko kultur etxeko ikastaroetan izena emateko azken eguna. Biterin egin daiteke, edo internetez: [web.hernani.eus/kultura](http://web.hernani.eus/kultura). Horrez gain, asteazkenean, literatur solasaldia antolatu da. Elena Poniatowskaren *Leonora*, eta Thomas Mannen *Muerte en Venecia* izango dira jorratuko diren lanak, gidaria Amaia Garcia izanik. Arratsaldeko 19:30etan izango da, Biterin.

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

VI. URTEURRENA

**JOSE MARI MITXELENA SAGASTIBELTZA (BORDAXPI)**

*Beti gure bihotzetan*

**BERE EMAZTEA: KONTXI; SEME-ALABAK: JEXUX MARI ETA NEREA; MARI JOSE ETA JOSU; ETA ANDER; BILOBAK: GEXAN, BEÑAT ETA IRAI**



Goizuetan, 2020ko irailaren 7an

## IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**Allianz**

**ASEGURUAK**

bizita-  
lstripuak  
ibilgailuak  
etxeak  
komertzioak  
enpresak  
ardura zibila  
finantz aseguruak  
inbertsioak

**agustin ezponda irizar**  
**agentzia**

Nagusia, 13  
Telf.: 943 55 73 26  
Faxa: 943 33 57 71

musika eskola  
**DOINU-ZALE**

KARABEL AUZOA, 4 - beheko erailea

**MATRIKULA ZABALIK**  
*irailaren 15era arte*

**KLASEAK ASTE HONETAN HASI DIRA**

*Helduen ikasketak bereziak eta bakarkakoak dira. Talde balioketan egingo da lan.*

IMANOL KAMIO  
musika eskola

943 33 12 33 - 637 85 79 62